Urnietako udala

# 2019KO URTARRILAREN 29KO OHIKO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 29 DE ENERO DE 2019

**Akta zenbakia: 01/2019**
**Bilera data:** 2019-01-29
**Bilera mota:** Ohiko osoko bilkura
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordu:** 19:00- 19:23
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratutakoak:**

**Alkatea:** Mikel Pagola Tolosa

**Zinegotziak:**

Maribel Vaquero Montero
Jorge Segurado Iriondo
David Rosco Jorge
Juan Luis Goikoetxea Benzala
Mª Pilar Sarasola Bulman
Manuel Mayoz Ostolaza
Itziar Artola Bedia
Xabier Yurramendi Garmendia
Consuelo Frutos Gonzalez
Ivan Haro Marcos

**Ez dira bertaratu eta adierazi dute:**

Mikel Izagirre Rekondo
Ixiar Martiarena Lizarazu

**Idazkaria:**
Mateo Habibi Astigarraga López

Urnietan, 2019ko urtarrilaren 29an, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 19:00etan, Mikel Pagola Tolosa alkatea lehendakari dutela, ohiko bilera egiteko.

Gehiengo absolutuaren quoruma gainditu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

**Aztergaiak:**

**1.- 2018ko azaroaren 27ko ohiko udaltzarraren akta eta abenduaren 17ko eta abenduaren 21eko ez ohiko udalbatzarren akten onarpena bidezko bada.**

**2.- Eskualdean bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako tutoritzapeko etxebizitza zerbitzurako hitzarmenaren onarpena.**

**Acta nº: 01/2019**
**Fecha:** 29-01-2019
**Tipo de reunión:** Pleno ordinario
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 19:00- 19:23
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Reunidos:**

**Alcalde:** Mikel Pagola Tolosa

**Concejales:**

Maribel Vaquero Montero
Jorge Segurado Iriondo
David Rosco Jorge
Juan Luis Goikoetxea Benzala
Mª Pilar Sarasola Bulman
Manuel Mayoz Ostolaza
Itziar Artola Bedia
Xabier Yurramendi Garmendia
Consuelo Frutos González
Iván Haro Marcos

**No asisten y excusan su ausencia:**

Mikel Izagirre Rekondo
Ixiar Martiarena Lizarazu

**Secretario:**
Mateo Habibi Astigarraga López

En la villa de Urnieta a 29 de enero de 2019, siendo las 19:00 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Mikel Pagola Tolosa, al objeto de celebrar sesión ordinaria.

Superado el quórum de la mayoría absoluta y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

**Orden del día:**

**1.- Aprobar, si procede, las actas de la sesión plenaria ordinaria del 27 de noviembre del 2018 y de las sesiones plenarias extraordinarias del 21 de diciembre de 2018.**

**2.- Aprobación del convenio comarcal para el servicio de vivienda tutelada para personas en riesgo de exclusión social.**


San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

**3.- Eskualdean bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako tutoritzapeko etxebizitza zerbitzuaren arautegiaren hasierako onarpena.**

**3.- Aprobación inicial de la normativa del servicio comarcal de vivienda tutelada para personas en riesgo de exclusión social.**

**4.- 2019 urteko araudi-plana onartzea.**

**4.- Aprobación del Plan normativo de 2019.**

**5.- 2019 urteko kontratuen plana onartzea.**

**5.- Aprobación del Plan de contratos de 2019.**

**6.- 2019/69 dekretuaren berri ematea, zeinen bidez Langarda Batzorde Bereziaren Lehendakaritza aldatzen den.**

**6.- Dar cuenta del decreto 2019/69 por el que se modifica la presidencia de la Comisión Especial de Langarda.**

**7.- Memoria eta Bizikidetza Batzorde Berezian, EH-Bilduko kideen adskripzioaren aldaketaren berri ematea.**

**7.- Dar cuenta de la modificación de la adscripción de los miembros de EH-Bildu en la Comisión Especial de Memoria y Convivencia.**

**8.- Alkatetza dekretuen berri ematea. (751-893).**

**8.- Dar cuenta de los decretos de alcaldía. (751-893).**

**9.- Galdera-eskariak.**

**9.- Ruegos y preguntas.**

*********

*********

**1.- 2018ko azaroaren 27ko ohiko udaltzarraren akta eta abenduaren 17ko eta abenduaren 21eko ez ohiko udalbatzarren akten onarpena bidezko bada.**

2018ko azaroaren 27ko ohiko udalbatzarraren akta eta abenduaren 17ko eta abenduaren 21eko ez-ohiko udalbatzarren aktak onartzea proposatzen da.

Udalbatzak izatez eta eskubidez osatzen duten 13 zinegotzietatik, azaldu diren edo bertan dauden 11 zinegotzien aho bateko adostasunez onartu ditu 2018ko azaroaren 27ko ohiko udalbatzarraren akta eta 2018ko abenduaren 17ko eta abenduaren 21eko ez-ohiko udalbatzarren aktak.

**1.- Aprobar, si procede, las actas de la sesión plenaria ordinaria del 27 de noviembre del 2018 y de las sesiones plenarias extraordinarias del 21 de diciembre de 2018.**

Ss propone la aprobación de las actas de la sesión plenaria ordinaria del 27 de noviembre del 2018 y de las sesiones plenarias extraordinarias del 17 de diciembre y del 21 de diciembre del 2018.

El Pleno ha aprobado por unanimidad de los 11 concejales presentes o asistentes a la sesión, de los 13 que de hecho y derecho integran la Corporación, las actas de la sesión plenaria ordinaria del 27 de noviembre del 2018 y de la sesión plenaria extraordinaria del 17 de diciembre y del 21 de diciembre del 2018.

.

**2.- Eskualdean bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako tutoritzapeko etxebizitza zerbitzurako hitzarmenaren onarpena.**

Mikel Pagola alkateak hartzen du hitza puntuaren aurkezpena egiteko, eta era berean adierazten du abenduaren 18ko Antolakuntza Batzorde Informatzailean bozkatu zela gai hau eta bertan

**2.- Aprobación del convenio comarcal para el servicio de vivienda tutelada para personas en riesgo de exclusión social.**

Toma la palabra el alcalde Mikel Pagola, para presentar el punto, y de la misma forma, explica que este tema se trató en la Comisión Informativa de Organización del 18 de diciembre, y que en la

adostu zela abendurako aurreikusita zegoen Udalbatzarrean erabakirik ez hartzea. Prozesu honetan eskualdean dauden sei herrietatik Hernani eta Lasarte-Oria nabarmentzen direla, herri hauek izango baitira tutoritzapeko etxebizitzak eskainiko dituztenak, eta Lasarte-Oriako udalak oraindik 2018an ez zuela hitzarmen hau sinatzeko konpromezua hartu, otsaileko udalbatzarrean onartzeko asmoa daukatelarik. Horregatik atzeratu dela puntu honen bozketa udalbatzar honetara.

misma se acordó no tomar decisiones en el Pleno que estaba previsto para diciembre. Que en este proceso, de los seis pueblos que hay en la comarca hay que destacar Hernani y Lasarte-Oria, ya que estos pueblos serán los que ofrezcan viviendas tuteladas, y que el ayuntamiento de Lasarte-Oria todavía en el 2018 no había tomado el compromiso de firmar este convenio, tienendo intención de aprobarlo en el Pleno de febrero. Por ello, se ha retrasado la votación de este punto a este Pleno.

Eztabaidarako txanda irekita, Itziar Artola Urnietako EH-Bildu Udal taldearen bozeramaileak hartzen du hitza adierazteko horrelako zerbitzuak eta neurriak beharrezkoak direla eta begi onez ikusten dituztela.

Abierto el plazo para el debate, toma la palabra Itziar Artola la portavoz del Grupo Municipal EH-Bildu, para exponer que este tipo de servicios y medidas son necesarios y que los ven con buenos ojos.

1. Aurrekariak

Gizarte Zerbitzuen legearen garapenari lotuta, Eusko Jaurlaritzak, 2015eko urriaren 6an Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 dekretua onartu zuenetik, Buruntzaldea eskualdeko udalek beharrezkoa ikusten dute indarrak batu behar dituztela Gizarte Zerbitzuen mapa garatzeko.

Eskualdeko lankidetza hitzarmenak, gizarte zerbitzuen Maparen edukiak eta helburuak betetzeko, jarduera koordinatuaren esparrua arautzeko beharrari ere erantzuten dio, bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuetan alojamendu zerbitzua eman ahal izatea ahalbideratuko du.

1. Antecedentes

En relación con el desarrollo de la Ley de Servicios Sociales, y a partir de la aprobación por parte de Gobierno Vasco del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, los Ayuntamientos de Buruntzaldea ven necesario unir fuerzas para el desarrollo del Mapa de Servicios Sociales.

El convenio de colaboración comarcal, responde asimismo a la manifiesta necesidad de dotar de un marco de actuación coordinada en la comarca para llegar a desarrollar los contenidos y los objetivos del mapa de Servicios Sociales, y posibilitará la prestación de los servicios de alojamiento en viviendas tuteladas para personas en riesgo de exclusión social a nivel comarcal.

2. Legedi aplikagarria

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena, 6, 22, 55 eta 57 artikuluak.
- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (SPAJL) 47 eta 53. Artikuluak.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 dekretua.

2. Legislación aplicable

- Los artículos 6, 22, 55 y 57 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del régimen Local-LRBRL-.
- Los artículos 47 a 53 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen Jurídico del sector Público –LRJSP-.
- Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.
- Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (ETEL) 17.10 eta 100. Artikuluak.

Ikusita 2018ko abenduaren 18an Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena.

Alkateak gaia bozkatzea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 11.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.
URNIETAKO EH BILDU:2
URNIETAKO UDAL TALDE SOZIALISTA: 2.

Aurka: 0.

Abstentzioak: 0.

Udalbatzak izatez eta eskubidez osatzen duten 13 zinegotzietatik, azaldu diren edo bertan dauden 11 zinegotzien aho bateko adostasunez honako hau

**ERABAKITZEN DU**

<u>**Lehena.-**</u> Beterri-Buruntza eskualdean bazterkeri egoeran dauden pertsonentzako tutoritzapeko etxebizitzetarako zerbitzua emateko hitzarmenaren testua onartzea (I eranskina).

<u>**Bigarrena.-**</u> Alkateari-lehendakariari aipatutako hitzarmena sinatzeko ahalduntzea.

<u>**Hirugarrena.-**</u> Erabaki hau hitzarmena sinatuko duten Udalei jakinaraztea, eta Gizartekintza, Idazkaritza eta Kontu-hartzailetza sailei helaraztea.

- Artículos 17.10 y 100 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Organización en sesión celebrada el 18 de diciembre de 2018.

El alcalde ha propuesto someter a votación el asunto, con el siguiente resultado:

A favor: 11.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.
URNIETAKO EH BILDU: 2.
GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA DEL AYUNTAMIENTO DE URNIETA: 2.

En contra: 0.

Abstenciones: 0.

El Pleno por unanimidad de los 11 concejales presentes o asistentes a la sesión, de los 13 que de hecho y derecho integran la Corporación, adopta el siguiente

**ACUERDO:**

<u>**Primera.**</u> Aprobar el texto del Convenio para la prestación del programa del Servicio de viviendas tuteladas para personas en riesgo de exclusión social de Beterri-Buruntzaldea (Anexo I).

<u>**Segunda.**</u> Facultar al Alcalde-Presidente para la firma del mencionado convenio.

<u>**Tercera.-**</u> Notificar este acuerdo a los Ayuntamientos parte del Convenio y trasladar el mismo a los departamentos de Acción Social, Secretaría e Intervención.

**3.- Eskualdean bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako tutoritzapeko etxebizitza zerbitzuaren arautegiaren hasierako onarpena.**

<u>Mikel Pagola alkateak</u> puntuari sarrera ematen dio adieraziz aurreko puntuan onartutako hitzarmenaren jarraipen bat dela eta puntu honetan hasierako onarpena ematen zaion araudiari, hau izango baita zerbitzu hori arautuko duena.

**3.- Aprobación inicial de la normativa del servicio comarcal de vivienda tutelada para personas en riesgo de exclusión social.**

<u>El alcalde Mikel Pagola</u> introduce el punto explicando que es la continuidad del convenio aprobado en el punto anterior y que en este punto se aprueba inicialmente la normativa que regulará este servicio.



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

# 2019KO URTARRILAREN 29KO OHIKO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 29 DE ENERO DE 2019

1. Aurrekariak

I. 2018ko ekainaren 25eko Alkatetzaren probidentzia bitartez espedienteari hasiera eman zitzaion.

II. 2018ko ekainaren 26an txosten juridikoa igorri zuen Idazkari Orokorrak eta espedienteari gehitu zitzaion.

III. Kontsulta publiko bat egin zen udal webgunearen bitartez, kaltetuak izan daitezkeen banakako pertsonen eta erakundeen iritzia jasotzeko helburuarekin. Ekarpenak egiteko epea uztailaren 11n amaitu zen, eta ez zen inolako ekarpenik jaso.

2. Legedi aplikagarria

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena, 22, 49 eta 70.2 artikuluak.

- Herri-Administrazioen Prozedura Administratibo Erkidearen urriaren 1 eko 39/2015 Legearen 133. Artikulua.

- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea.

- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

Ikusita 2018ko abenduaren 18an Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena.

Alkateak gaia bozkatzea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 11.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.
URNIETAKO EH BILDU:2
URNIETAKO UDAL TALDE SOZIALISTA: 2.

Aurka: 0.

1. Antecedentes

I. Con fecha 25 de junio de 2018 se inició mediante providencia de alcaldía el expediente.

II. Con fecha 26 de junio de 2018 se emitió informe jurídico por parte del secretario general, y se incorporó al expediente.

III. Se realizó una consulta pública mediante el portal Web municipal, con el fin de recabar la opinión de personas individuales y de los organismos más representativos que puedan haberse visto afectados. El plazo para realizar aportaciones finalizó el 11 de julio, sin recibir aportación alguna.

2. Legislación aplicable

- Los artículos 22, 49 y 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del régimen Local.

- Artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

- Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales

- Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Organización en sesión celebrada el 18 de diciembre de 2018.

El alcalde ha propuesto someter a votación el asunto, con el siguiente resultado:

A favor: 11.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.
URNIETAKO EH BILDU: 2.
GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA DEL AYUNTAMIENTO DE URNIETA: 2.

En contra: 0.



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D · 943 008 000 · 943 008 037 · urnietakoudala@urnieta.eus · urnieta.eus

Abstentzioak: 0.

Udalbatzak izatez eta eskubidez osatzen duten 13 zinegotzietatik, azaldu diren edo bertan dauden 11 zinegotzien aho bateko adostasunez honako hau

**ERABAKITZEN DU**

**Lehena.-** Hasierako onarpena ematea Buruntzaldean gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonei babestutako etxebizitzetan bizitoki zerbitzua eskaintzeko araudiari

**Bigarrena.-** Espedientea publikoki agerraraztea 30 egun baliodunez, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazio eta ohartarazpenak aurkez ditzaten.

Adierazitako informazio epea igarota erreklamaziorik edo ohartarazpenik aurkeztu ez balitz, behin betiko onartutzat emango da erabakia, erabaki berririk hartzeko beharrik gabe.

Abstenciones: 0.

El Pleno por unanimidad de los 11 concejales presentes o asistentes a la sesión, de los 13 que de hecho y derecho integran la Corporación, adopta el siguiente

**ACUERDO:**

**Primera.-** Aprobar inicialmente el reglamento del servicio de alojamiento en viviendas tuteladas para personas en riesgo de exclusión de Buruntzaldea.

**Segunda.-** Someter el expediente a información pública durante un plazo de 30 días hábiles a partir del día siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a fin de que las personas interesadas examinen el expediente y presenten las reclamaciones y sugerencias que estimen pertinentes

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación o sugerencia alguna, se tendrá por adoptado definitivamente el acuerdo hasta entonces provisional, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

**4.- 2019 urteko araudi-plana onartzea.**

Mikel Pagola alkateak puntuari sarrera ematen dio eta informazio zehatzagoa emateko idazkariari ematen dio hitza.

Mateo Astigarragak azaltzen du plan honen jatorria Prozedura administratiboa arautzen duen 39/2015 legean dagoela. Jarraian zerrendatzen ditu plan horretan 2019rako onartzeko aurreikusten diren araudi eta dirulaguntzak emateko onartu beharreko oinarri arautzaileak.

Eztabaidarako txanda irekita, Consuelo Frutos Urnietako Alderdi Sozialistaren bozeramaileak hartzen du hitza adierazteko batzordean abstenitu egin zirela, zalantzaren bat zeukatelako, baina idazkariarekin argitu ondoren alde bozkatuko dutela.

Jarraian Itziar Artola Urnietako EH-Bilduko Udal taldearen bozeramaileak hartzen du hitza

**4.- Aprobación del Plan normativo de 2019.**

El alcalde Mikel Pagola introduce el tema y da la palabra al secretario para que de información más concreta.

Mateo Astigarraga explica que la procedencia de este plan es la Ley 39/2015 que regula el procedimiento adminitrativo. A continuación, informa de las normas y bases reguladoras de subvenciones que se prevé aprobar durante el 2019.

Abierto el turno de debate toma la palabra Consuelo Frutos portavoz del Grupo Municipal Socialista de Urnieta para manifestar que se abstuvieron en la votación de este punto en la comisión porque tenían algunas dudas, pero que tras aclararlas con el secretario, van a a votar a favor.

A continuación toma la palabra Itziar Artola, portavoz del Grupo Municipal EH-Bildu, para exponer que ellos



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

adierazteko beraiek ere idazkariarekin argitu dituztela puntu honen inguruan zituzten zalantzak eta alde batetik ados daudela horrelako dokumentu bat gardentasun atarian argitaratzeko proposamenarekin, baina beste alde batetik proposamen politiko bat izanik eta horren mamia zein den ez dakitenez beraien posizioa abstentzioarena izango dela. Gaineratzen du badakitela proposamen hau ez dagoela itxita eta aukera egongo dela planteamendu berriak sartzeko, eta orduan irekita egongo direla horien inguruan hitz egiteko.

Mikel Pagola alkateak erantzuten du hau ez dela dokumentu itxi bat, baizik eta posible izango dela urtean zehar gertatu daitezkeen aldaketak bertan azaltzen diren araudi horietan txertatzea.

1. Aurrekariak

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, administrazio publikoek araudi-plan bat argitaratu beharko dute eta, bertan, hurrengo urtean onetsiak izan daitezen aurkeztuko diren araudi-ekimenak jasoko dira. Behin onetsita, urteko araudi-plan hori dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian argitaratuko da.

Horrela, araudi-plana onesteari eta hori udal webgunean argitaratzeari esker, herritarrek existitzen diren araudi-ekimenen berri izan dezakete, baita ekitaldian zehar burutu nahi diren ekimenen berri ere. Beraz, herritarren parte-hartzea sustatzeko tresna bihurtzen da.

Aurrekoagatik, plan hau onetsi nahi da, non 2019ko ekitaldian zehar aurkeztu eta sustatu nahi diren araudi-ekimenak jasotzen diren.

Nolanahi ere, herritarren araudi-ekimena kontuan hartuz, aintzat hartu behar da araudi-plan honetan jasotako zerrenda ez dela itxia, ezta zehatza ere. Hau da, herritarren ekimenen bidez, bertan jasota ez dauden eta hurrengo ekitaldian garatu eta onetsiko diren proposamenak aurkez daitezke (bai ordenantzei edo arautegiei dagokienez, bai plangintzari dagokionez).

también aclararon con el secretario las dudas que tenían en torno a este punto, y que por un lado están de acuerdo con la propuesta de que un documento de este tipo se publique en el portal de transparencia, pero que por otro lado, siendo una propuesta política, y que como no saben cuál es su contenido, su posición será la abstención. Añade que saben que esta propuesta no está cerrada y que habrá oportunidad de incluir nuevos planteamientos, y que entonces estarán abiertos a hablar sobre ellos.

El alcalde Mikel Pagola responde que este no es un documento cerrado, sino que es posible incluir en esas normativas que aparecen ahí los cambios que pueden ocurrir a lo largo del año.

1. Antecedentes

En virtud de lo estipulado en el artículo 132 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, anualmente, las Administraciones Públicas harán público un Plan Normativo que contendrá las iniciativas reglamentarias que vayan a ser elevadas para su aprobación en el año siguiente. Una vez aprobado, el Plan Anual Normativo se publicará en el Portal de Transparencia de la Administración Pública correspondiente.

De este modo la aprobación de dicho Plan Normativo y su posterior publicación en la web municipal permite a la ciudadanía tener conocimiento de las iniciativas reglamentarias existentes así como de las que se pretenden llevar a cabo a lo largo del ejercicio, presentándose de este modo como un instrumento para favorecer la participación ciudadana.

Por lo anterior, se pretende la aprobación de este Plan, en el que se recogen las iniciativas reglamentarias que se pretende promover y elevar para su aprobación en el ejercicio 2019.

En todo caso, teniendo en cuenta la iniciativa reglamentaria ciudadana, ha de considerarse que el listado contenido en este Plan Normativo no es cerrado ni exhaustivo, en el sentido de que pueden presentarse por la iniciativa ciudadana propuestas no contenidas en el mismo y que se vayan a desarrollar y aprobar en el próximo ejercicio (tanto respecto a Ordenanzas o Reglamentos como en lo referente a planeamiento).

Era berean, nabarmendu behar da ez dela zerrenda itxia, legegintza- eta araudi-aldaketek udal-araudia bestelako xedapenetara edo legeetara egokitzeko beharra eragin dezaketelako; hala, inguruabar hori ezin da aurreikusi plan hau onesterakoan.

Igualmente, ha de destacarse que no se trata de un listado cerrado en la medida en que los cambios legislativos y normativos pueden devenir en la necesidad de adaptar la normativa municipal a otras disposiciones o leyes, circunstancia ésta que no puede ser prevista en el momento de la aprobación de este Plan.

Oro har, oraingo ordenantzak berrikustea eta horiek Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legera egokitzea aurreikusten da. Horrez gain (arau horrek ezartzen dituen errekerimendu teknikoekiko egokitzapen-mailaren arabera), administrazio prozedura arautzen duen ordenantza bat onestea aurreikusten da, tresnak eta prozedurak zehaztuz.

Con carácter genérico se prevé también revisar las ordenanzas existentes y proceder a su adaptación a la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común, así como (en función del grado de adaptación a los requerimientos técnicos que dicha norma establece) aprobar una ordenanza reguladora del procedimiento administrativo, concretando herramientas y procedimientos.

Araudi-plana egituratze aldera, planak arlo hauek bereizten ditu:

1. Ordenantza arautzaileak (ez fiskalak) eta arautegiak.

2. Ordenantza fiskalak eta aurrekontu-araudia.

En aras a estructurar el Plan Normativo, el Plan diferencia las siguientes áreas:

1ª Ordenanzas Reguladoras (no fiscales) y Reglamentos.

2ª Ordenanzas Fiscales y normativa presupuestaria.

2. Legedi aplikagarria.

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132. artikulua.
- Apirilaren 2ko Toki Administrazioaren Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.d) artikulua.

2. Legislación aplicable

- Artículo 132 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- Artículo 22.2.d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Ikusirik Udal sailekin landutako plan- proposamena.

Vista la propuesta de Plan elaborada en coordinación con las diferentes áreas municipales.

Ezarri beharreko aipatutako legediaren arabera erabakia Udalbatzari dagokio.

De conformidad con la normativa aplicable citada la adopción del acuerdo corresponde al Pleno.

Ikusita 2019ko urtarrilaren 24ko Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Organización en sesión celebrada el 24 de enero del 2019.

Alkateak gaia bozkatzea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:
Alde: 9.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.

El alcalde ha propuesto someter a votación el asunto, con el siguiente resultado:
A favor: 9.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

URNIETAKO UDAL TALDE SOZIALISTA: 2.

Aurka: 0.

Abstentzioak: URNIETAKO EH BILDU: 2.

Udalbatzarrak, beharrezko legezko gehiengoarekin ondorengoa

**ERABAKITZEN DU**

**Lehena.-** Udalaren 2019 urterako araudi-plana onartzea (II: Eranskina).

**Bigarrena.-** Araudi-plana Udalaren gardentasun atarian (http://www.urnieta.eus/gardentasuna) argitaratzea.

GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA DEL AYUNTAMIENTO DE URNIETA: 2.

En contra: 0.

Abstenciones: URNIETAKO EH BILDU: 2.

El Pleno adopta con la mayoría legal requerida, el siguiente

**ACUERDO:**

**Primero.-** Aprobar el Plan normativo del Ayuntamiento de Urnieta para el año 2019. (Anexo II)

**Segundo.-** Publicar el Plan normativo en el Portal de Transparencia del Ayuntamiento. (http://www.urnieta.eus/es/transparencia)

**5.- 2019 urteko kontratuen plana onartzea.**

Mikel Pagola alkateak puntuari sarrera ematen dio adieraziz legeak ezarritakoari jarraiki kopuruaren arabera urtean lizitatuko diren kontratuen plana onartu behar dela.

Eztabaidarako txanda irekita Consuelo Frutos Urnietako Udal talde Sozialistaren bozeramaileak hartzen du hitza adierazteko aurreko puntuan bezala zalantza batzuk zituztela, baino idazkariarekin argitu ostean alde bozkatuko dutela.

Jarraian Itziar Artola Urnietako EH-Bildu Udal taldearen bozeramaileak hartzen du hitza adierazteko aldeko botoa emango dutela, kasu honetan ez baita irizpide politikorik jasotzen, irizpide teknikoak baizik legeak horrela agintzen duelako.

1. Aurrekariak

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak sektore publikoko erakunde guztiak behartzen ditu beren urteko kontratuzko jarduera planifikatzera eta argitaratzera, behintzat harmonizatua den prozedurari lotuta dauden kontratuetarako.

**5.- Aprobación del Plan de contratos de 2019.**

El alcalde Mikel Pagola introduce el tema exponiendo que según lo impuesto por ley, dependiendo de la cantidad, hay que aprobar el plan de contratos que se licitarán durante el año.

Abierto el turno de debate toma la palabra Consuelo Frutos portavoz del Grupo Municipal Socialista de Urnieta para manifestar que como en el punto anterior tenían algunas dudas, pero que tras aclararlas con el secretario, van a a votar a favor.

A continuación toma la palabra Itziar Artola portavoz del Grupo Municipal EH-Bildu para manifestar que a van a votar a favor en este puntu, ya que este caso no se recogen criterios políticos, sino criterios técnicos impuestos por la ley.

1. Antecedentes

La Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP) obliga a todas las entidades del sector público a planificar y publicar su actividad contractual anual, al menos para los contratos sujetos a regulación armonizada (SARA).



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D   943 008 000   943 008 037   urnietakoudala@urnieta.eus   urnieta.eus

Horiek horrela, 28.4 artikuluak ezartzen du sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoko jarduera programatuko dutela, zeina aurrekontu-ekitaldi batean edo hainbat urtetarako alditan garatuko baitute, eta aldez aurretik beren kontratazio-planaren berri emango dutela 134. artikuluan aurre ikusten den aurretiko informazio-iragarki baten bidez, zeinak gutxienez harmonizatua den prozedurari lotuta dauden kontratuak jasoko dituen. Azken kontratu hauek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 19. artikulutik 23. artikulura bitartean zehazten dira.

Así, el artículo 28.4 establece que las entidades del sector público programarán la actividad de contratación pública, que desarrollarán en un ejercicio presupuestario o períodos plurianuales y darán a conocer su plan de contratación anticipadamente mediante un anuncio de información previa previsto en el artículo 134 que al menos recoja los contratos SARA. Estos últimos contratos se definen en los artículos 19 a 23 LCSP.

Honela, Kontratazio Plan hori onartzeak eta, ondoren, Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratzeak aukera ematen du, batetik, lizitatzaileen eta, bereziki, enpresa txikien eta ertainen (ETEak) parte hartzea errazteko Udalak egiten dituen kontratazio-prozeduretan. Gainera, gardentasuna indartzeko mekanismo bat da, aurretiko informazio horren bidez, lehia sustatzen duelako. Kontratatzailearen profila “Kontratazio Publikoa Euskadin” plataforman dago (www.contratacion.euskadi.eus estekan eskuragarri dago).

De este modo la aprobación de dicho Plan de Contratación y su posterior publicación en el perfil de contratante del Ayuntamiento alojado en la plataforma “Contratación Pública en Euskadi” (accesible en www.contratacion.euskadi.eus) permite, por una parte, facilitar la participación de los posibles licitadores y, en especial, de las pequeñas y medianas empresas (PYMES), en los procedimientos de contratación llevados a cabo por el Ayuntamiento, suponiendo, además, un mecanismo para reforzar la transparencia, al fomentar la competencia mediante esa información anticipada.

Bestetik, kontratazio-organoei aukera ematen die beren kontratuzko jarduera ondo planifikatzeko eta aldez aurretik ematen diren premiazko epeak direla-eta tramitazio presazkoak saihesteko.

Por otra parte, facilita a los órganos de contratación realizar una adecuada planificación de su actividad contractual y evitar tramitaciones precipitadas por la premura de plazos que se conocen de antemano. 2019

Urteko Kontratazio Planak kontratuen zerrenda bat du, oinarrizko datuak barne (xedea, prezioa, iraupena eta aurreikusitako lizitazio-data), enpresek kontratazio-planen berri aldez aurretik izan dezaten, deialdiari adi egon daitezen eta eskaintzak egiteko planifikatzen joan daitezen.

El Plan Anual de Contratación recoge una relación de contratos, con sus datos básicos (objeto, precio, duración y fecha estimada de licitación), para que las empresas puedan conocer anticipadamente los planes de contratación, estar atentos a la convocatoria e irse planificando para hacer las ofertas.

Plan adierazgarria da, eta ez du kontratu guztiak lizitatzera edo azaldutako baldintza zehatzetan horiek egitera behartzen.

Es un plan indicativo, que no obliga a licitar todos los contratos o a hacerlos con las condiciones concretas anunciadas.

2. Legedi aplikagarria.

- Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 28.4 eta 134. artikuluak eta 2. Xedapen Gehigarria.

2. Legislación aplicable.

- Artículos 28.4 y 134 y Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

Ikusirik planaren proposamena.

Vista la propuesta de Plan.

Ezarri beharreko aipatutako legediaren arabera erabakia Udalbatzari dagokio.

De conformidad con la normativa aplicable citada la adopción del acuerdo corresponde al Pleno.

Urnietako udala

# 2019KO URTARRILAREN 29KO OHIKO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 29 DE ENERO DE 2019

Ikusita 2019ko urtarrilaren 24ean Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena.

Alkateak gaia bozkatzea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 11.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.
URNIETAKO EH BILDU:2
URNIETAKO UDAL TALDE SOZIALISTA: 2.

Aurka: 0.

Abstentzioak: 0.

Udalbatzak izatez eta eskubidez osatzen duten 13 zinegotzietatik, azaldu diren edo bertan dauden 11 zinegotzien aho bateko adostasunez honako hau

**ERABAKITZEN DU**

**Lehena.-** Urnietako Udalaren 2019ko kontratazio-plana onartzea.(III eranskina).

**Bigarrena.-** Kontratazio-plana “Kontratazio Publikoa Euskadin” plataforman dagoen Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratzea (www.contratacion.euskadi.eus estekan eskuragarri dago).

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Organización en sesión celebrada el 24 de enero del 2019.

El alcalde ha propuesto someter a votación el asunto, con el siguiente resultado:

A favor: 11.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.
URNIETAKO EH BILDU: 2.
GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA DEL AYUNTAMIENTO DE URNIETA: 2.

En contra: 0.

Abstenciones: 0.

El Pleno por unanimidad de los 11 concejales presentes o asistentes a la sesión, de los 13 que de hecho y derecho integran la Corporación, adopta el siguiente

**ACUERDO:**

**Primero.-** Aprobar el Plan de Contratación del Ayuntamiento de Urnieta para el año 2019. (Anexo III)

**Segundo.-** Publicar el Plan de Contratación en el perfil de contratante del Ayuntamiento alojado en la plataforma “Contratación Pública en Euskadi” (accesible en www.contratacion.euskadi.eus).

**6.- 2019/69 dekretuaren berri ematea, zeinen bidez Langarda Batzorde Bereziaren Lehendakaritza aldatzen den.**

Udalbatzarra 2019/69 alkatetza dekretuaren berri emanda geratzen da.

**6.- Dar cuenta del decreto 2019/69 por el que se modifica la presidencia de la Comisión Especial de Langarda.**

El Pleno de la Corporación queda enterado del decreto de alcaldía 2019/69.

**7.- Memoria eta Bizikidetza Batzorde Berezian, EH-Bilduko kideen adskripzioaren aldaketaren berri ematea.**

Mikel Pagola alkateak azaltzen du, EH-Bildu udal taldeak aurkeztutako idatzian eskatutakoari erantzunez, gaurtik aurrera Memoria eta

**7.- Dar cuenta de la modificación de la adscripción de los miembros de EH-Bildu en la Comisión Especial de Memoria y Convivencia.**

El alcalde Mikel Pagola explica que dando respuesta al escrito presentado por el Grupo Municipal EH-Bildu, a partir de hoy, la que hasta ahora era miembro



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

Bizikidetza Batzorde Bereziaren kide zen Ixiar Martiarenaren ordez, Itziar Artola izango dela batzorde berezi horren kide titularra.

Udalbatzarra aldaketaren kontu emanda geratzen da.

de la Comisión Especial de Memoria y Convivencia Ixiar Martiarena, será sustituida por Itziar Artola como miembro titular de la misma.

El Pleno de la Corporación queda enterado del cambio.

**8.- Alkatetza dekretuen berri ematea. (751-893).**

Consuelo Frutos Udal Talde Sozialistaren bozemaileak esaten du dekreturen baten inguruan azalpenak nahi lituzkeela baina zenbakia ez dakiela.

Mikel Pagola alkateak erantzuten dio lasai begiratzeko eta nahi duenean azalpenak eskatzeko.

Udalbatzarra 751-893 alkatetza dekretuen kontu emanda geratzen da.

**8.- Dar cuenta de los decretos de alcaldía. (751-893).**

Consuelo Frutos, portavoz del Grupo Municipal Socialista, comenta que quisiera aclarar algún decreto pero que desconoce la numeración.

El alcalde Mikel Pagola responde que lo mire tranquilamente y que pida las aclaraciones cuando quiera.

El Pleno de la Corporación queda enterado de los decretos de alcaldía 751-893.

**9.- Galdera-eskariak.**

Ez daude.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak amaitutzat eman du ohiko osoko bilkura hau, goian adierazitako eguneko arratsaldeko zazpiak eta hogeitahiru, eta nik, Urnietako idazkariak, hala egiaztatu dut, Alkatearen oniritziarekin.

**9.- Ruegos y preguntas.**

No hay.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno ordinario, siendo las diecinueve y veintitres horas en la fecha indicada en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, Secretario de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Mateo Habibi Astigarraga López

Idazkaria

Sin.: Mikel Pagola Tolosa

Alkate-lehendakaria,



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D  943 008 000  943 008 037  urnietakoudala@urnieta.eus  urnieta.eus

*Anexo I / I. Eranskina*

**BURUNTZALDEAN BAZTERKERIAKO ARRISKU EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO TUTORETZAPEKO ETXEBIZITZA-ZERBITZUAK EMATEKO HITZARMENA**

Elkartu dira Buruntzaldeko udalak:

Usurbilgo Udala, Urnietako Udala, Lasarte-Oriako Udala, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak, Astigarragako Udala eta Andoaingo Udala.

Erakunde bakoitzean, ordezkatzen dutenaren izenean eta ordez eta ekitaldi hau gauzatzeko beharrezkoa den lege gaitasuna daukatela, honako hau.

**AZALTZEN DUTE**

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak bermatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren prestazioak eta zerbitzuak lortzea eskubide unibertsala eta subjektiboa dela, eta eskubide hori betetzea erreklamatu ahal dute, administrazio-bidean eta jurisdikzio-bidean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsalizatzeko Lege horrek ezartzen zuen 2016-12-25az geroztik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza lortzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituzten pertsona guztiek.

Gizarte Zerbitzuen Legearen garapenari lotuta, Eusko Jaurlaritzak 2015eko urriaren 6an Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretua onartu zuenetik, Buruntzaldea eskualdeko udalek beharrezkoa ikusten dute indarrak batu behar dituztela Gizarte Zerbitzuen Mapa garatzeko.

Arestian aipatu dugun araudiak aztertzen du, era berean, eskumena duten administrazio publikoen arteko lankidetza-esparrua, bai eta programazioaren eta plangintzaren esparruak ere.

Gizarteratzeko modu koordinatu eta globalean biltzen ditu bazterketa-egoeran dauden pertsonak

**CONVENIO PARA LA PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS DE ALOJAMIENTO EN VIVIENDAS TUTELADAS PARA PERSONAS EN RIESGO DE EXCLUSIÓN DE BURUNTZALDEA**

Reunidos los Ayuntamientos de Buruntzaldea:

El Ayuntamiento de Usurbil, el Ayuntamiento de Urnieta, el Ayuntamiento de Lasarte-Oria, el área de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Hernani, el Ayuntamiento de Astigarraga y el Ayuntamiento de Andoain.

Las partes, en el nombre y representación en que concurren y con la capacidad legal necesaria para la celebración de este acto.

**EXPONEN**

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, garantiza el acceso a las prestaciones y servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales como un derecho universal y subjetivo cuyo cumplimiento podrán reclamar, en vía administrativa y jurisdiccional, cuando venza el plazo que establece dicha Ley para la universalización del Sistema Vasco de Servicios Sociales (25-12-2016), todas las personas que cumplan los requisitos, generales y específicos, de acceso a cada servicio o prestación económica del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

En relación con la Ley de Servicios Sociales, y a partir de la aprobación por parte del Gobierno Vasco del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, los Ayuntamientos de Buruntzaldea ven necesario unir fuerzas para el desarrollo del Mapa de Servicios Sociales.

La citada Ley contempla igualmente el marco de cooperación entre las administraciones públicas competentes, así como los de programación y planificación.

Incluye de forma coordinada y global todas las funciones de las administraciones competentes



San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D · 943 008 000 · 943 008 037 · urnietakoudala@urnieta.eus · urnieta.eus

gizarteratzea lortzeko administrazio eskudun guztien jarduerak bideratu behar dituzte.

Gizarte-zerbitzuen alorreko egitekoak zehazten dituen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzko 2015eko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuetan alojamendua emateko zerbitzuak udalen eskumenekoak direla esaten du.

Buruntzaldeko sei udal-administrazioek nahi dute zerbitzu sozialen arloko elkarlanean jarraitu, beste hainbat arlotan egiten duten bezala.

Gizarte Zerbitzuen Maparen edukiak eta helburuak betetzeko jarduera koordinatuaren esparrua arautzea beharrezkoa dela ikusirik, Buruntzaldeko udalek elkarren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmen hau sinatzea adosten dute, bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuetan alojamendu-zerbitzuak emateko, segidan ezartzen diren klausulekin.

**LEHENA.- Xedea.**

Hitzarmen honen bitartez adostasun-esparru bat finkatu nahi da, Buruntzaldean bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuetan alojamendu-zerbitzuak emateko. Honen bidez, izaera onartzen zaio gaur egun arte burututako lankidetza puntualari, eta agiria sinatzen duten aldeen arteko lankidetzaren baldintzak ezartzen dira, bazterketa-egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko.

Hitzarmen honen ondorioetarako, lankidetzatzat hartuko da:

- Oinarrizko gizarte-zerbitzuetan zuzeneko arreta ematen duten profesionalen arteko komunikazio arina izatea eta haien artean informazio esanguratsua trukatzea, esku-hartze profesionala hobeto gauza dadin.

para la inserción de las personas que se encuentran en riesgo de exclusión.

